



EUSKO  
IKASKUNTZA

90

1918-2008

## Todo el legado documental de Arizmendiarieta, en [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org)

2008 uztaila/julio/juillet  
Nº 191 zenb.

Eusko Ikaskuntzak 11.000 artxibo inguru jarri ditu jabari publikoan. Horien artean euskal mugimendu kooperatibistaren bultzatzailearen dokumentu funtsari dagozkion liburuak, eskuizkribuak, fitxak, pentsamenduak eta argazkiak aurkitzen dira

Cuando se han cumplido 52 años desde la creación de la primera cooperativa industrial en Mondragón, Eusko Ikaskuntza ha puesto en red todo el legado documental de José María Arizmendiarieta (1915-1976), el gran impulsor del movimiento cooperativista vasco. El 12 de junio en Arrasate-Mondragón se presentó la web asociada a [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) en la que se reúnen casi 11.000 archivos conteniendo pensamientos, notas manuscritas, libros, fotografías, junto con dos importantes obras biográficas.

En el acto ante los medios de comunicación el Presidente de Eusko Ikaskuntza, Javier Retegui, se felicitó de que el pensamiento espiritual y social del *alma mater* del cooperativismo vasco al fin "se abre a todo el mundo", y calificó el fondo como una herramienta "imprescindible para comprender el movimiento cooperativo de Mondragón y una parte esencial de la historia vasca del siglo XX".

### Un escaparate idóneo

Por su parte, José M<sup>a</sup> Ormaetxea, uno de los cinco fundadores del movimiento cooperativo mondragonés y uno de los artífices de este proyecto, apostó por que la digitalización del legado de José María Arizmendiarieta sirva de



pauta para "ordenar la vida del cooperativismo *arizmendiano* a medida que el cambio del escenario económico y social, a escala mundial, exija que se vaya renovando y adaptando aquel modelo de empresa cooperativa que él dejó al morir".

Finalmente, el Director Gerente de Eusko Ikaskuntza, Josemari Velez de Mendizabal, tras afirmar que la web de la Fundación Euskomedia de Eusko Ikaskuntza constituye el "escaparate idóneo para difundir el legado" del inspirador del movimiento cooperativista vasco, justificó esa aseveración en las estadísticas que indican que dicha web recibe más de 300.000 visitas mensuales, con la previsión de sumar más de 5 millones de entradas sólo durante el año 2008.

### Pertsona, ardatz

Jose Maria Arizmendiarieta da Arrasateko Kooperatiben Mugimenduaren sortzailea. Enpresaren kudeaketari buruzko kontzeptio aurrerakoi eta ausarta baten bitartez, Arizmendiarietak eta bere giza taldeak abian jarri zuten industria azpiegitura garrantzitsua, mundu osora irradiatu duena. Arizmendiarieta gestio estilo bat sortu eta ezarri zuen, enpresaren ardatza gizakia dela baieztatuz.

Arrasateko lehen kooperatiba industrialja jaio zenetik 52 urte igaro direnean, Eusko Ikaskuntzak sarean jartzen du, apaiz eta pentsalari bikain haren legatu idatzia, hainbat dokumenturen bitartez. Posible izan da, legatuaren kudeatzaileekin izenpetutako hitzarmenari esker. Arrasateko Kooperatiben Mugimendua hobeto ulertzeko ezinbesteko dokumentazioa da.

### En la foto

Javier Retegui, Presidente de Eusko Ikaskuntza. Jose M<sup>a</sup> Ormaetxea, Fundador del movimiento cooperativista. Arantza Cuesta, Directora de la Fundación Euskomedia de Eusko Ikaskuntza. Alfonso Gorroñoigoitia, Fundador del movimiento cooperativista. Jose M<sup>a</sup> Velez de Mendizabal, Director Gerente de Eusko Ikaskuntza.

Ei Gazte!

## Umorea eta sormena Ei Gazte!-ren irudiaren aurkezpenean

Ekinaren 26an, Donostian, Ei Gazte!, Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailaren korporazio irudi berria aurkeztu zen jendaurrean, Doka Kafe Antzokian.

Hogei diseinu inguru aurkeztu ziren 16 eta 30 urte bitarteko Eusko Ikaskuntzako bazkide guztiek parte har zezaketen lehiaketara.

Izaskun Saez Velasco bizkaitarra gertatu zen irabazle. Aurkeztu zuen kolore biko logoan neurri desberdineko "bunbuilo" batzuk tartekatzen dira, euskal gazterian dauden ahots eta irizien aukera irudikatu nahi dutenak.

### Baleki gazteak, baleza zaharrak

Jose Luis Lanzagorta diseinatzaileak, Jose Javier Fernandez arte kritikoa eta Mainer Lopez artistak osatzen zuten epaimahaia. Mainer Lopezek



nabarmendu egin zuen "logo irabazlearen freskotasuna. Hala formaren aldetik nola kontzeptuen aldetik freskotasuna transmititzen duen irudia da, formaz eta esanahiaz. Epaimahaiko guztiak bat etorri ginen irudi irabazlea aukeratzekoan".

Irudiaren eta egilearen aurkezpena egin ondoren, "Baleki gazteak, baleza zaharrak" izenburuko ikuskizuna

na azaldu zen. Josu Goikoetxea narra-tzaileak gidaturiko antzerki jostagarri eta irudimentsu horrek Unai Gaztelumendi marrazkilaren inprobisazioak eta Uxue Alberdi eta Sustrai Kolina bertsolari gazteen bat-bateko jarduna barne hartzen zituen. Artista horiek Donostiako Doka Kafe Antzokian bilduriko publiko gaztea ongi pasatzea lortu zuten.



## Argentinatik Bilbora


Durant le mois de juin, Eusko Ikaskuntza a transporté son activité académique et de divulgation jusqu'en Argentine et, à Bilbao, l'une des personnalités de la culture basque a reçu un hommage.

### Curso en La Plata

Dentro del convenio de colaboración que Eusko Ikaskuntza tiene establecido con la Universidad Nacional de La Plata, del 17 al 21 de junio el socio Jon Bagües impartió en ella un curso de postgrado sobre "Documentación musical y archivos musicales". Durante su estancia en Argentina, Jon Bagües dio sendas conferencias en el Centro Vasco de La Plata, sobre "Eresbil, Archivo Vasco de la Música", y en Eusko Kultur Etxea de Buenos Aires con el título "Archivo Vasco de la Música y el patrimonio etnográfico musical vasco".

### Pablo García Casado

Como tercer acto de la segunda temporada de "Bizkaia Forum", programa de actividades culturales impulsado por la Vicepresidencia por Bizkaia de Eusko Ikaskuntza, el 12 de junio en Bilbao el escritor Pablo García Casado ofreció una conferencia bajo el título "Hablemos de dinero". García Casado (Córdoba, 1972) es uno de los poetas más personales y renovadores del panorama cultural actual. Su libro "Las afueras" recibió el Premio Ojo Crítico de RNE en 1997 y fue finalista del Premio Nacional de Poesía ese mismo año.




## Arana Martijari omenaldia

Ekinaren 27an, Bilbon, Eusko Ikaskuntzak omenaldi bizia eskaini zion Jose Antonio Arana Martijari. Musikeko Antxon Zubikararik Arana Martijaren musika lana deskribatu zuen; Jon Bagüesek Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboari musikologoak emandako dokumentu funtsa aurkeztu zuen; eta Itziar Larrinaga, Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko lehendakariak Jose Antonio Arana Martijari eskainitako "Musiker" aldizkariaren 15. alearen edukiak ezagutarazi zituen. Zuzeneko musikaren alderdia Berzitu Txistuzale Elkarteak hartu zuen bere gain.

## 'Eguzkilore'

Euskomedia Fundazioa ha procedido durante la primera mitad del 2008 a la digitalización de la revista *Eguzkilore*, perteneciente al Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. El total de volúmenes procesados en el nuevo formato asciende a veinte, correspondientes a los años 1976 a 1996, lo que supone cerca de 6.000 páginas digitalizadas con una resolución de 300 dpi.



## Jakiunde Heziberrin

Ekinaren 23an, Heziberri, hezkuntzari buruzko gogoeta, pentsamendu eta iritzi gunea aurkeztu zen. Jakiunde - Zientzia, Arte eta Letren Akademiak bultzatzen du Heziberri, Eusko Jaurlaritzarekin, Innobasquerekin eta Euskal Herriko Hezkuntza Administrazioen Forum Europarekin batera. Hasieran, Heziberri web orri batean bistaritzen da (www.heziberri.net), eta bertan etorkizunerako teknolo-

giak eta ikaskuntza arloak arduratzen da Jakiunde.

Proiektuaren aurkezpenan ondokoek esku hartu zuten: Luis Otano, Forumeko arduraduna; Pedro Luis Uriarte, Innobasqueko presidentea; Tontxu Campos, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua eta Javier Echeverria, Jakiundeko kidea.

## La plus grande web sur la Nature

Coïncidant avec le Jour Mondial de l'Environnement, Eusko Ikaskuntza inaugure la plus grande web sur la faune et la flore terrestre et maritime du Pays Basque.

Il s'agit des fonds documentaires de l'Association pour la Défense des Espèces en Voie d'Extinction (ADEVE), qui se composent de plus de 24.000 pages en euskera et espagnol et environ 19.000 photographies organisées thématiquement et avec des outils de recherche.

On prétend contribuer de cette façon à la diffusion de la culture de la Nature à faciliter l'étude et la connaissance de notre biodiversité biologique à travers Internet, sans aucun frais pour l'utilisateur.



## L'euskara et le monde basque

La bourse qu'Eusko Ikaskuntza et l'Université de Genève offrent conjointement chaque année a été attribuée à Thomas Pierre, docteur en Anthropologie Sociale et Ethnologie, pour le développement de la recherche intitulée *Les rapports à l'euskara au regard des représentations contemporaines du*

*monde basque en Pays basque de France.*



L'objectif est de voir dans quelle mesure les origines historiques et sociales des diverses représentations de l'identité culturelle en Pays Basque nord induisent ou non les différents rapports à la langue basque entretenus par la population.



## Con los Ayuntamientos

*Erandiorenkin sinaturiko hitzarmen berri batek hainbat lani irekitzen die atea, hala nola orain Idiazabalen bukatzen dena edo Zambranaren zabaldu egin dena, bi kasutan dokumentu funtsei dagozkienak.*

### Idiazabal, dokumentu basea

Eusko Ikaskuntzak eta Idiazabalgo Udalak beka bat eman zioten Iñigo Imaz bazkideari 2005ean, Gipuzkoako udalerririk horri buruz dagoen dokumentazio guztia aurkitu eta baloratzeke, hala bibliografia materialen aldetik nola artxiboaren aldetik. Lan hori zabaldu eta osatu egin da eta Idiazabali buruzko 7.062 dokumentu erreferentzia biltzen dituen datu base bat gauzatu da, hainbat artxibotan aurkitzen diren materialekin. Idiazabalgo Udala Artxiborako aberaste izugarria ekarri du horrek.

### Archivos de Zambrana

En el marco del convenio con el Ayuntamiento de Zambrana, en los últimos años Eusko Ikaskuntza ha dirigido las labores de catalogación y clasificación de su Biblioteca Municipal, y, al procederse al traslado a una nueva sede, las de reorganización y reubicación de sus fondos. Ahora, se ha concedido una beca a la socia Monserrat Ocio para que lleve a cabo la ordenación, clasificación e informatización de los siguientes archivos del Ayuntamiento de Zambrana: Archivo de Escribanos, Histórico y Juzgado de Paz y Registro Civil.

### Firma con Erandio

El 16 de Junio Eusko Ikaskuntza firmó con el Ayuntamiento de Erandio un Convenio de colaboración cultural y científica que tendrá su concreción a lo largo de los próximos años en diversas realizaciones.

Con este ya son 90 los Convenios establecidos por Eusko Ikaskuntza con Ayuntamientos vascos para el desarrollo de actividades culturales y científicas, 15 de ellos en Bizkaia.



En representación de Erandio estampó su firma el alcalde Mikel Arieta-Araunabeña, y el Vicepresidente por Bizkaia Jon Kortazar lo hizo por parte de Eusko Ikaskuntza.

## La cultura es para el verano

Eusko Ikaskuntza programa actividades culturales este verano en localidades con las que mantiene relaciones de colaboración. Además, es tiempo para poner en marcha trabajos que se prolongarán en otoño.

### Conciertos en Bera

*\*Agosto: 8, 15 y 22*

La iglesia de San Esteban de Bera alberga uno de los mejores órganos de Navarra, construido en 1895. Para su conocimiento y divulgación, Eusko Ikaskuntza a través de su Sección de Música ha diseñado un programa de conciertos en el mes de agosto: el día 8 lo dará Ana Aguado, el 15 Esther Iñiguez, y un tercer concierto el día 22 en el marco del Ciclo de Órgano de Navarra. Además, a partir de septiembre se pondrá en marcha un estudio que incluirá una descripción técnica del instrumento y un estudio histórico tanto del actual órgano de la parroquia como de otros que pudieran haber existido anteriormente en Bera.

### El-Ville de Baiona Sariak

*\*Ikerketa eta sorkuntza*

Beste urte batez, Eusko Ikaskuntzak eta Baiona Hiria beren urteko sariak emango dituzte. Euskal Kultura Sari bikoitza Baionarekin edo Ipar Euskal Herriko lurraldeekin zerikusia duen obra zientífico edo kultural berri baten egile-arentzat izaten da (2.500 euroko diru homidura). Bestalde, Iparraldean euskal kulturaren alde edo zientziaren alde lan bereziki esanguratsua burutu duten pertsonak ohoratzeko asmoa dago. Gainera, Sari bat ematen zaio sortzaile ez profesional batek egindako Bideo Dokumental Onenari edo euskal bizitzaren alderdi bati buruzko Erreportaje Onenari, (1.250 euroko diru homidura).

### Abantailak bazkideentzat

*Cet été les membres d'Eusko Ikaskuntza peuvent économiser lors de leurs sorties en emmenant avec eux la carte qui les accreditte comme tels. Ils obtiendront des réductions et des avantages dans quinze musées et espaces culturels importants.*

### Carné de socios

*\*Descuentos y ventajas*

El nuevo carné de Eusko Ikaskuntza acredita a sus titulares como investigadores y permite beneficiarse de descuentos y tarifas especiales en numerosos museos y espacios culturales.

**Alava:** Artium, Catedral Santa María.

**Bizkaia:** Euskal Museoa, Museo Marítimo, El Pobal de Muskiz.

**Gipuzkoa:** Donostia Kultura, Kutxa-espacio de la Ciencia, Museo Naval, Valle del Hierro, Igartubeiti, Centro de la Alimentación de Ordizia, Museo Romano Oiasso, Museo Zumalakarregi, Photomuseum, Sagardoetxea Museo de Astigarraga.

### Orotz-Betelun

*\*Hitzaldiak eta aurkezpenak*

Uda honetan, Orotz-Beteluko Udalarekin sinaturiko lankidetzaz hitzarmenaren esparruan, zenbait kultura eta dibulgaziozko jardura antolatu ditu Eusko Ikaskuntzak. Alde batetik, abuztuaren lehenean eta 16an, Euskomedia Fundazioak buruturiko hiriko Argazki Artxiboaren digitalizazioa aurkeztuko da. Bestetik, Joxe Etxegoien bazkideak bi hitzaldi emango ditu: uztailaren 28an, Orotz-Beteluko historiari buruzkoa, eta abuztuaren 9an, haren kultura paisaiari buruzkoa. Uztailaren 28ko eta abuztuaren 1eko jardura horiek Garbitegian egitekoak dira, eta abuztuaren 9koa eta 16koa Olaldea Elkartearen.

### Archivo de Agurain

*\*Clasificación y ordenación*

En el marco del convenio del Ayuntamiento de Agurain con Eusko Ikaskuntza, en los próximos meses un equipo formado por los socios Josu Zumeta (licenciado en Historia y en Documentación) e Ismene Retolaza (licenciada en Historia y master en Biblioteconomía y gestión de la información), bajo la dirección de Montserrat Fernández, va a proceder a la clasificación y ordenación de la documentación administrativa de 1997 a 2006 contenida en el Archivo Municipal.

Se prevé que esta labor se complete posteriormente con la documentación administrativa de 1991 a 1996, y con la histórica-administrativa de 1900 a 1990.

### 'Gazte-Txartela'

*\*Eusko Ikaskuntzan*

Gazteria, Eusko Ikaskuntzako gazteria sailak hitzarmen bat sinatu du Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzarekin, 'Gazte-Txartela' duten gazteek dohainik Eusko Ikaskuntzako bazkide izateko aukera izan dezaten.

Gazte-Txartela ekimenak ondasun eta zerbitzu kulturaletara eta materialetara iristea bideratzen die gazteei eta, oro har, haien bizi kalitatea areagotzen lagunduko duten guztira. Gazte-Txartela lortu dezakete aldi baterako edo etengabe Euskadin bizilekua duten 14 eta 25 urte bitarteko gazteek.

## Curso de Verano de Jakiunde

*\*Sobre Academias científicas*

Jakiunde - Academia de las Ciencias, las Artes y las Letras, organiza el 29 de agosto en el marco de Cursos de Verano de Donostia el simposio "El rol de Academias Científicas en sociedades modernas". En el mismo disertarán representantes del Institut d'Estudis Catalans, Norwegian Academy of Science and Letters, College de France et Académie des Inscriptions et

Belles Lettres, University of Oslo y de la Real Academia Española de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales. Por último se desarrollará una mesa redonda.

Los interesados pueden matricularse a través de la web de Cursos de Verano: [www.sc.ehu.es/scrwww-su/index.htm](http://www.sc.ehu.es/scrwww-su/index.htm).

### Cueva de Santimaniñe

*\*Monográfico en [www.euskonews.com/](http://www.euskonews.com/)*

En el mes de julio, la revista electrónica *Euskonews&Media* va a dedicar uno de sus monográficos a la cueva de Santimaniñe, justo cuando acaba de ser declarada Patrimonio de la Humanidad por la Unesco. En el número se recoge una entrevista con Josune Aristondo, Diputada de Cultura de Bizkaia, junto con diversos artículos referidos al proceso de recuperación y acondicionamiento de la cueva, el arte paleolítico, el nuevo proyecto, además de una descripción de la oferta cultural y otras informaciones útiles para los visitantes a Santimaniñe.



### Udazkeneko Jardunaldiak

*A partir de septiembre se desarrollarán jornadas sobre los juegos y deportes populares, la investigación folclórica y etnográfica o la atención socio-sanitaria a la población inmigrante.*

#### Herri jokoak

*\*Gizarte eta hizkuntza alderdiak*

Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailak "Joko, Jolas eta Kirol herrikoiak eta tradizionalak. Gizarte eta hizkuntza ikuspegiak" Jardunaldia iragarri du irailaren 27rako. Helburu bikoitza du Jardunaldiak: alde batetik, moda ludiko berriak direla eta, gertatu den aldaketa eta joko eta solas tradizionalei gizarteak nolako arreta eskaintzen dien aztertzea, eta, bestetik, hori guztia irakaskuntzaren arlotik nola interpretatzen den ikustea.

#### Investigación folclórica y etnográfica

*\*Jornada interdisciplinar*

La Sección de Folklore prepara una Jornada que, bajo el título "La investigación folclórica y etnográfica en Euskal Herria: ayer, hoy y mañana", tendrá lugar en Basauri el 4 de octubre. Está abierta a los miembros de las Secciones de Folklore, Antropología-Etnografía, Lengua y Literatura así como a cualquier persona interesada. Se pretende recoger la mayor riqueza de puntos de vista sobre la materia desde distintos ámbitos de investigación.

#### Immigration et santé

*\*Invitation à participer*

La Section des Sciences de la Santé d'Eusko Ikaskuntza invite à participer à la VIII<sup>ème</sup> Journée Santé et Société qui aura lieu à Bilbao le 14 novembre et qui a pour thème Immigration et attention socio-sanitaire. L'objectif est d'encourager le rapprochement entre professionnels de différents domaines (Anthropologie, Epidémiologie, Nutrition, Attention primaire, etc.), afin d'harmoniser des stratégies de santé et d'attention socio-sanitaire parmi la population immigrante.



JAKIUNDE  
ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA

15 de octubre

Termina el plazo de presentación de candidaturas y trabajos

Inmigración y atención socio-sanitaria

Es el tema de la VIII Jornada Salud y Sociedad, del 14 de noviembre



EUSKO  
IKASKUNTZA

90

1918-2008

## Landaburu gogoan

2008ko apirilaren 28an, San Prudentzio egunean, Arabako Foru Aldundiak Francisco Xavier de Landaburu y Fernández de Betoñori "Euskal Herriaren eta Arabaren baloreen alde ahalegin guztiak egiteagatik" Arabako domina eman zion. Azkenik, merezitako esker ona jaso du, 1960tik aurrera, Jose Antonio Agirre hil ondoren eta Jesus Maria Leizaola lehendakari izendatutakoan, Parisen, Erbesteko Eusko Jaurlaritzaren lehendakariordea izan zen gasteiztarak.

Landaburu (1907ko irailaren 5ean sortua) pertsona polifazetiko izan zen: abokatua formazioz eta lanbidez, gazte-gaztetatik erakutsi zuen ekintza desberdinekiko zaletasuna. Kazetari moduan, esaterako, kolaboratzaile, zuzendari, zutabegile eta publizista gisa aritu zen, edo *Radio Euzkadin* esatari lanean ere. Musika arloan, Luis de Arambururekin batera, Deportivo Alavés futbol taldearen ereserkia izango zena ere idatzi zuen: "Animo pues que la victoria nos sonríe".

Kultur suspertzailea, Eusko Ikaskuntza elkartearen kide izan zen. Erakunde horretan, Araban euskara eta euskal kultura bultzatzeko "Baribar" saila sortu zuen, eta Eusko Ikaskuntza barruan antolatuta zen Autonomia Batzordearen partaide izan zen. Batzorde horren lana bilakatu zen, gerora, Lizarrako estatutuaren oinarri.

Baina Landabururen ahalegin handienak politikarekin uztartzen dira. EAJ-PNVko burukide, 1933an Madrileko Gorte Nagusietan parlamentaria izan zen. 1936ko altxamenduaren ondorioz, faxisten pertsekuzio gogorra zela eta, 1937ko iraila arte ezkutatuta egon behar izan zuen. Azkenik, muga pasatzea

lortuta, EAJ-PNVk eta Eusko Jaurlaritzak beren ordezkari izendatu zuten Parisen. Eginkizun bera izan zuen Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Ligan, eta erakunde horretan Verdier Kardinala, François Mauriac, Jacques Maritain edota Edouard Herriot bezalako gizon ospetsuekin jardun zuen. Horrez gain, Agirre lehendakariak atzerriko Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko harremanetarako arduradun aukeratu zuen.

Alemaniarrek Frantziako hiriburua hartu zutenean, Gestapo atzetik zuen arren, aliatuekin eta erresistentziarekin kolaboratu zuen euskal informazio-zerbitzuaren barrutik. 1944an, Paris alemaniarren aurka altxatu zenean, bertara heltzea lortu eta Marceau kaleko Eusko Jaurlaritzaren delegazioa okupatu zuen beste kide batzuekin batera.

1948an Miarrizteko Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan Euskal Zuzenbideko ataleko zuzendari izan zen, eta kultur arloko txostengile izendatu zuten 1956ko Euskal Mundu Biltzarerako. Pentsalari izan zen aldetik, ondorengo bi liburuetan aurki dezakegu bere oinordetza: *El nacionalismo en Araba* eta *La causa del pueblo vasco* (1956). Azken horretan, belaunaldi gazteei zuzendu zitzaizkien, eta indarkeriaren aldeko diskurtsoa zabaltzen

**«La generación de Landaburu es un ejemplo para encarar un futuro de convivencia entre los vascos»**

hasia zen garaian Landaburuk nazionalismoak ordura arte jorraturiko bide duina azpimarratu eta Europa begiratzeko aholkua luzatzen zuen.

1963an hil egin zen, José Antonio de Aguirre, forjador de la nación liburuaren prestatzen ari zelarik. 1980an, EAJ-PNVko Alderdi aldizkari klandestinoan idatzitako haren artikulua argitaratu ziren Bilbon, *Escritos en "Alderdi"* izeneko bilduman.

EAJ-PNVko ideologo garrantzitsua, Landabururen pentsamenduak ideario kristau-demokrata eta europeismoa zituen ardatz. Eta bi ildo horien inguruan, 50eko hamarkadan sortzen ari zen belaunaldi nazionalista berriarekiko elkarrizketa-bideak ezarri zituen. Sozial-kristautasunaren sustatzaile nagusia EAJren barruan, honako artikulua esanguratsua idatzi zituen: "Emmanuel Mounier-Leon Blum", "Patronos cristianos y curas obreros! ...Comunismo tampoco" edo "¿Debe tener el partido una doctrina social?".

Bestetik, Manuel de Irujorekin batera, Europa batu baten aldeko defendatzaile sutsua izan zen. Alde horretatik, Mugimendu Europarraren sorrerari eman zion bultzada, eta mundu gerraren ondoren sortzen ari zen Europa berregituratu hartan Euskalari jokatu beharreko rola azpimarratu zuen. Erabateko jarrera europeista hori argi adierazi zuen Landaburuk ondorengo artikuluetan: "En torno al Pacto del Atlántico", "La lección de la Commonwealth", "De Luxemburgo a Estrasburgo" edo "Marc Sagnier, el sembrador".

Landabururen proposamenek indar betean diraute orain ere. Izan ere, hain egoera latza bizitako belaunaldi baten ahalegina eta zintotasuna errekonozitzea, dudarik ez dut, etorkizuna zintotasunez jorratzeko baliabide aparta izango dugu.

## LIBURUAK

### Isidoro Guinea eta dekorazio arteak / y las artes decorativas

LERTXUNDI GALIANA, Mikel  
Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Gipuzkoa: Donostia, 2007

lazko apiriletik ekainera bitartean, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak "Isidoro Guinea eta dekorazio arteak" izenburuko erakusketa bat antolatu zuen. Bilbotar artista horren (1893-1947) obraren erakusgai zabala biltzen zuen erakusketak, berak landuriko hamaika dekorazio diziplinean: arkitektura, barne dekorazioa eta altzarien diseinua, dekorazio margoa, beirateak, eskulturen diseinua, kartelak eta iragarkiak, irudiak, heraldika, exlibris eta zigiluak, zeramika eta antzertia. Mikel Lertxundi Galiana, erakusketa komisarioak egindako liburu-katalogo bikainak nabarmendu egiten du beraren garrantzia. Ongi taxuturiko biografia baten ondoren, Isidoro Guinearen obra ugari, handiak eta txikiak, erreproduzitzen dira hamaika diziplina horietako bakoitzean, eta horrek, oro har, artista handi haren sorkuntza ahalmenaren irudi guztiz betegina eskaintzen du.



### Medio siglo de un centro educativo. Pasionistas de Euba, 1956-2006

ARRIEN, Gregorio  
Curia Provincial Pasionista: Euba (Zornotza), 2006

Gregorio Arrien, personalidad de referencia en materia educativa en tierra vasca, es el autor de este muy documentado libro publicado con motivo del cincuentenario del seminario pasionista de Euba, en 1956. La obra recorre el proceso desde la instalación de los primeros pasionistas a comienzos de 1949 hasta el funcionamiento actual de la ikastola Lauaxeta, pasando por todas las etapas que jalonan la vida de esta institución educativa sólidamente anclada en la vida de Zornotza. Particularmente afinado es el análisis de la vida del seminario (1956-1969) y la crisis de vocaciones que desemboca en su conversión en el Colegio San Gabriel, el cual en el curso 1981-1982 se integrará plenamente en la ikastola Lauaxeta creada cuatro años antes.



## Agenda

### Uztaila / Julio / Juillet

- 20: EuskoMovie, Concurso de Cortometrajes
- 28: Oroz Betelu. Charla de Joxe Etxegoien

### Abuztua / Agosto / Août

- 1: Oroz Betelu. Presentación digitalización del Archivo Fotográfico
- 8: Bera. Concierto de órgano por Ana Aguado
- 9: Oroz Betelu. Charla de Joxe Etxegoien
- 15: Bera. Concierto de órgano por Esther Iñiguez
- 16: Oroz Betelu. Presentación digitalización del Archivo Fotográfico
- 22: Bera. Concierto de órgano
- 29: Donostia. Curso de Verano El rol de Academias Científicas en sociedades modernas

### Iraila / Septiembre / Septiembre

- 26: Bilbao. Eragilea eta Iraunkorra / Ejecutivo y Junta Permanente

- 27: Basauri. Jornada Juegos y Deportes populares y tradicionales: perspectivas social y educativa

### Urria / Octubre / Octubre

- 4: Basauri. Jornada La investigación folclórica y etnográfica en Euskal Herria: ayer, hoy y mañana
- 15: Fin de admisión a los Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona

### Azaroa / Noviembre / Noviembre

- 14: Eragilea / Ejecutivo  
Bilbao. Inmigración y atención socio-sanitaria
- 21: Pleno de Jakiunde
- 25-26: Bilbao. Symposium de Historia de Bilbao: Bilbao en el mundo Napoleónico (1799-1815)